

HIRIGINTZA FITXA.- 1 SO. ERRIBERAKO ETA HONDARTZAKO PASEALEKUAK.

DEBA ALDEA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**1.1. GARAPENEO PLANEAMENDUA.**

Ez da egin. Kanpoaldeko dikea handitzeko proiektu teknikoa bakarrik.

1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.

Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak, Kosta Legea.

1.3. HIRI EGITURA.

Debako hiri egitura eratzen duen elementua da, herriko pasealekuetako bat izaki.

1.4. ESPARRUAREN AZALERA. 25.204 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarra.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Hiriko espazio libreen sistema (11. artikulua: F.1).

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA. : Mugaketa orain dagoenaren antzekoa da, baina 7 SO (kirol portua) sistemak eten egiten du; nolana ere, erabilera eta jabari publikoko espazio libreen jarraitutasuna eta bideragarritasuna mantentzen dira.

2.4. ITSASO ETA LEHORAREN

ARTEKO ZEDARRIPEN PUBLIKOA: Kosta Zerbitzuak eskainitako 4.5 planoaren arabera.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.**3.1. HIRI BILBEA FINKATU ETA ERABERRITZEA.**

Nafarroa plazan, sestra azpian garaje erabilera baimenduko da.

Gainean plaza publikoa denez, hondartza muturreko pasealekua bermatzeko moduan diseinatu beharko da.

Era berean, hondartzako zerbitzuak berregokitu eta eraberritzea baimenduko da.

Errioren ertzeko pasealekuan, kontuan izango dira Estuarioaren Plan Bereziaren (28 SO) premiak.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Hirigintza arauetako 2. dokumentuaren arabera jokatuko da.

Babes zorpenaren eraginpeko eraikinek Kosta Legearen Laugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorpeneko zonan baimendutako erabilerak Kosta Legeko 24 eta 25. artikuluetan ezarritakora egokituko dira.

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Ez da ezarri.

Eraikuntza. Beharrezko eraikinak (hondartzako zerbitzuak) ezartzea baimenduko da. Baita lurpeko aparkalekuak ere.

Erabilera baimenduak Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren babes zorpeneko eremuan, Kosta Legearen 24 eta 25. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

Hondartza.

Hondartzako zerbitzu osagarriak: komunak, kabinak, aldagelak, taberna, biltegia.

Ibilgailuentzako garajeak (Nafarroa plazan bakarrik, itsaso eta lehorraren arteko zedarripen publikoa babesteko esparru publikoan).

Erabilera debekatuak Industrialak.
Egoitza-gunea.

3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagozkion hiritartze eta eraikuntza proiektuen araberakoak.

3.5. JABARI BALDINTZAK.

Jabari publikoa: Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa.

3.6. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipatu esparruan edozein esku-hartze egiteko, jabari publikoko lurretan eragiten duenez, beharrezkoa izango da dagozkion emakidak edo baimenak edukitzea eta Kosta Legean kasu bakoitzerako adierazitako zehaztapenetara lotzea.

Aurreikusitako ekipamenduak gauzatzean, kontuan hartu beharko dira 22/88 Kosta Legearen 25.2 artikulua ezartzen dituen mugak.

Obra osagarrien hiritartze proiektua.